

## DOCENTIAZ PROGRAMAREN FASE ESPERIMENTALAREN 7. DEIALDIA.

### **Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda eta errakuntzak zuzentzeko prozedura**

Eskariak aurkezteko epea amaituta eta DOCENTIAZ programaren fase esperimentalaren 7. deialdiak, 2016ko abenduaren 15eko gobernu kontseiluan onetsita, bere 3. oinarrian aurreikusi bezala, jakinarazten da argitara eman direla DOCENTIAZ programaren gestiorako aplikazioan (Ezkerreko menuan / Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak) onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak, kasuan kasu bazterrean geratzen arrazoia adierazi delarik.

Eskatzaileek hamar lanegunen epea izango dute, **2017ko martxoaren 15(e)tik 28(e)ra, biak barne**, nork bere zuzenketa aurkezteko. Interesatuak ez badu aurkezteko zuzenketa aipatutako epean, eskaria bertan behera uzten duela ulertuko da.

Zuzenketa guztiak unibertsitatearen erregistro orokorraren bulegoetan edo posta bulegoetan aurkeztu behar dira nahitaez, ezarritako epea amaitu aurretik.

UPV/EHUren Erregistro Orokorreko bulegoen kokapena eta irekiera egun eta ordutegiak kontsultatu ahal dira UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorreko Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegia onetsiz 2012ko maiatzaren 16an hartutako erabakian (2012ko ekainaren 18ko EHAA) eta <http://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritzanagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia> interneteko helbidean.

Zuzentzeko idazkia posta bulegoen bidez aurkeztu ahal izateko, kontutan izan behar da, posta zerbitzuen prestazioa artezten duen arautegia onartzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 errege dekretuaren 31. artikuluan jasotzen duena, bertan dioelarik:

*Herritarrek edo erakundeek posta zerbitzu orokorra erabiltzen dutenean administrazio publikoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, gutun azala irekita aurkeztu behar dute posta bulegoan, bidali nahi duten dokumentuaren lehenengo orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Baldintza hauek zein bere onarpenaren egiaztagiriaren gordekinean agertu behar dira. Era berean, igorleak eska dezake bidalketaren xehetasunak agertzea bidali nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreproduzioaren lehenengo orrian, postako langileak jatorrizkoa eta kopia erkatu eta berdina direla egiaztatzen ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa*

*aurkeztuko zaio administrazioko organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.*

*Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun azala, eta enplegatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.*

*Posta zerbitzu orokorraren bidez artikulua honetan zehaztutako moduan egiten diren bidalketak behar bezala bidalitakotzat joko dira, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 16. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. [gaztelaniaz jatorrizkoan]*

**Honez gain, zuzenketaren kopia, noiz aurkeztu den adierazteko erregistroaz bidaliko da posta elektronikoko [iez@ehu.eus](mailto:iez@ehu.eus) helbidera, gaiaren eremuan "DOCENTIAZ V7-ZUZENKETA".**

Leioa, 2017ko martxoaren 14(e)an.

**IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA**  
**Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko**  
**Errektoreordetza**